

I. ERANSKINA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ESPARRUAREN CURRICULUMA ETA HIZKUNTZA ETA GIZARTEA ESPARRUAREN CURRICULUMA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ESPARRUAREN CURRICULUMA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ESPARRUA

Zenbaitetan, ikasle batzuendako zaila da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren irteera-profilean izan beharko lituzketen gako konpetentziak barneratzea, eta, horrenbestez, konpetentzia horiek barneratuko dituztela bermatuko eta erraztuko duen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu bat diseinatu behar da. Horretarako, esparru honetako curriculuma prestatu da. Zientzien esparruko irakasgaiak hartzen ditu barne eta esparruko curriculumeko elementu eksklusiboak garatzen ditu. Horiei esker, bermatzen da ikasleek irteera profila izanen dutela, eta, gainera, irakasleen irakaslanerako marko gisa erabiltzen ahal dira.

Aniztasuneko curriculum hau aniztasunari erantzuteko neurri bat da. Ikasi nahi bai, baina laguntza jaso arren, hainbat arrazoiengatik oraindik zailtasunak dituzten ikasleen talde heterogeneoari dago zuzenduta. Beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko aukera bat da.

Curriculumeko elementuen planteamendua osatzeko, prozesu malgu, jarraitu eta ireki gisa hartu da ikaskuntza, zeina ikasleen egoera, behar eta interesetara egokitu behar baita. Esparru honetako curriculumeko elementuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken bi ikasturteetan landu beharko dira; edonola ere, oinarritzko jakintzak eta ebaluazio irizpideak sekuentziazten ahalko dira ikasleen arzaugarrien eta irakaslearen irizpidearen arabera.

Curriculumeko elementu guztiak (konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarritzko jakintzak) ikasleek etapa amaitzean lortu beharreko irteera-profila izan dezaten prestatu dira, eta, horretarako, esparruka banatu dira. Hala, etapa amaitzean izan beharreko irteera-profilearen gako konpetentziak oinarri izan dira konpetentzia espezifikoak idazteko. Era berean, ebaluazio irizpideak eta oinarritzko jakintzak prestatzeko aintzat hartu dira esparruko irakasgaien curriculumeko elementuak (Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika eta Matematika). Irakasgai horietan teknologiarekin lotutako gaiak konpetentzia digitala garatzearen bidez zein metodologia aktiboak erabiltzearen bidez lantzen dira, eta, horregatik, ez dira curriculum honetan sartu. Beraz, ikastetxe bakoitzak eta teknologiko arduradunak erabakiko dute esparru honetan ezarri edo ez.

Izan ere, zientzia eta teknologia esparruaren barneko arloen konpetentziak garatzen ahal dira eguneroko problemak konpontzeko zeharkako proposamenak eginez, horietan ikuspegi zientifikoa txertatuta eta arrazoibide eta metodo zientifikoak aplikatuta.

Esparru hau oinarritzko jakintzen hamaika bloketan dago banatuta, eta multzo horietan aipatu hiru zientziekin lotutako gaiak lantzen dira. Hala, Biologia eta Geologiako oinarritzko jakintzen artean daude honako hauek: giza gorputzaren funtzionamendua, osasuna eta ohitura osasungarriak; jasangarritasuna eta ingurumena zaintzea eta Garapen Jasangarrirako Helburuak; paisaiak sortzen dituzten eta natura hondamendiak eragiten dituzten prozesu geologiko nagusiak, horien arrisku eta prebentzioa barne. Fisika eta Kimikako oinarritzko jakintzen artean daude honako hauek: materia eta haren aldaketak, sistema materialen propietateak, indarra eta energia. Azkenik, Matematikako oinarritzko jakintzen artean daude honako hauek: zenbakiak, geometria eta neurriak, estatistika eta oinarritzko aljebra. Era

berean, honako hauek sustatuko dira: solidaritatea eta gizarte kohesioa gauzatzea, identitateak eta kultura aniztasuna errespetatzea, informazio zientifikoa aztertzea eta harekiko eta haren iturriekiko jarrera kritikoa izatea, emakumeen eta gizonen berdintasun erreala defendatzea eta diskriminazioaren aurka borrokatzea, batez ere zientziaren arloan.

Bestetik, esparru honetan metodologia aktiboak erabiltzearen bidez, ikaskuntza errazteko oinarri gisa, teknologia berriak, elkarlana eta emozioen kudeaketa sustatuko dira.

Esparruko curriculumeko ikuspegian, esparrua osatzen duten irakasgaiak osotasun gisa hartuko dira ebaluazioa egiteko. Hala, ebaluazio tresnek curriculumean ezarritakoarekin bat egin beharko dute eta konpetentzia bidezko ebaluaziora egokitu beharko dute.

1.-KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Zientziarekin lotutako informazioa bilatzea, aztertzea eta interpretatzea zenbait iturri eta baliabideren bidez (prentsa, Internet, sare sozialak, etab.), eta edukiaren zein iturrien egiazkotasuna egiaztatzea, ondoren kritikoki ebaluatzeko eta ahoz edo idatziz transmititu edo aurkezteko, betiere hiztegi zientifiko egokia erabilia.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena.

Gaur egun, oso eskura ditugu informazio iturri eta komunikabide asko (prentsa, Internet, sare sozialak, etab.), eta, gainera, zientziak oso azkar egiten du aurrera. Ondorioz, informazio kantitate ikaragarria dugu eta ezinbestekoa da hori hautatu eta kritikoki aztertzea, ondoren garrantzitsua dena gordetzeko eta gaizki-ulertzeak sortu edo eduki nahasgarriak izaten ahal dituen baztertzeko.

Zientzia, besteak beste, oso baliagarria da herritarrei eguneroko gertakariak eta prozesu errazak hurbildu eta azaltzeko, eta horrek ikasleak motibatzen ditu. Hori dela eta, eguneroko gaiekin lotutako lanak eta proiektuak egitean, ikasleek horri buruzko informazioa bilatu behar dute, hori kritikoki aztertu eta hausnartu eta haien beharren arabera aplikatu behar dute. Horretarako, oso garrantzitsua da informazio eta iturri fidagarriak bilatzeko eta identifikatzeko gaitasuna garatzea eta aurkitutakoaren egiazkotasuna berrestea, ondoren kritikoki erabili ahal izateko eta egiazkoa dela jakinda zabaltzeko, baita uste faltsuak eta zurrumurruak baztertzeko ere.

Informazio zientifikoa bilatzeko, aztertzeko eta transmititzeko zeregin honetan, nabarmentzekoa da hiztegi egokia erabiltzearen garrantzia: hiztegi zientifikoa erabili behar da, baina hartzaileen arabera moldatu behar da, eta ikasleak behar bezala jakin behar du ahoz zein idatziz adierazten.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifiko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: 2HKK, 3HKK, 1EK; 1KD.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 1.1. Ahoz zein idatziz, zientziarekin lotutako informazioa bilatzea, aztertzea eta aurkezte baliabide eta euskarri analogikoak eta digitalak erabiliz.
- 1.2. Lortutako informazio zientifikoaren egiazkotasuna zalantzan jartzea eta jarrera kritikoa izatea, eta oinarri zientifikorik ez duten informazioa eta horien iturriak baztertzeko (pseudozientziak, teoria konspiratzaileak, oinarri gabeko usteak, zurrumurruak, etab.).
- 1.3. Hiztegi zientifikoa eta terminologia egokia erabiltzea zientziari buruzko informazioa interpretatzean eta transmititzean, hizkuntza aniztasuna errespetatuz.

2. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Fenomeno naturalei buruzko proiektuak eta problemak proposatzea eta ebaztea metodo zientifikoa, zientzietako lege eta teoriak eta arrazoibide matematikoa aplikatzearen bidez, eta, hala, zientziarekin lotutako eguneroko gertakizunak interpretatzea.

2. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Metodo zientifikoa zientziaren lege eta teoria ikerketan eta proiektuen bidezko lanetan aplikatzea lortutako emaitzak zehatzak direla bermatzeko ezinbesteko oinarria da. Maiz, halako lanetan arrazoibide matematikoa erabiltzen da zientzietako problemen elementu inplizituak ebazteko.

Metodologia hau oso baliagarria da zientzia herritarrengana hurbiltzeko, eta, zehazki, ikasleengana hurbiltzeko, baita eguneroko gertakarien bidez zientziaren eta gizartearen arteko lotura baieztatzeko ere. Eguneroko gertakari sinpleak esparru zientifikoa eta zientziak ezarritako prozedura zorrotzen bidez azaldu ahal izateak garrantzia ematen dio zientziaren arloari eta ikasleek hori ikasteko duten interesa sustatzen du. Horrez gain, eguneroko gertakari eta prozesuak azaltzeko jakin-mina aprobe-txatu behar da ikasleak ikastera motibatuz.

Ikasleen profilararekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; STEM1; STEM2; EK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 2.1. Eguneroko gertakariak interpretatzea, metodo zientifikoa eta zientzietako legeak eta teoriak aplikatuz.
- 2.2. Zientziarekin lotutako problemak ebaztea, hurbileko testuinguru batean eta teknologia eta arrazoibide matematikoa erabiliz.

3. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Tresna analogikoak eta aplikazio digitalak erabiltzea problemak ebazteko eta proiektuak egiteko, emaitzak hainbat formaturen bidez aurkezteko (irudiak, grafikoak, taulak, dokumentuak, etab.) eta euskarri analogiko eta digitalen bidez komunikatzeko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena.

Tresna analogikoak eta aplikazio digitalak gako elementuak dira problemak ebazteko eta proiektuak zein lanak egiteko. Gaur egun, online aplikazio eta programa informatiko asko daude, eta ikasleei askoz errazagoa zaie lanak eta jarduerak egitea.

Emaitzak modu erakargarrian adieraztean, errazagoa da horiek komunikatzea, azaltzea eta hedatzea. Hori lortzeko, baliabide digital asko dago taulak, grafikoak, irudiak, dokumentuak eta abarrekoak diseinatzeko. Edonola ere, lan egiteko modu analogikoa ere oso garrantzitsua da adierazpen aukerak handitzeko, egoera guztiak barnebiltzeko eta sormen pertsonala sustatzeko.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; STEM4; KD2; KD3; ELK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 3.1. Datu zientifikoak irudien, taulen, grafikoen, txostenen eta abarren bidez adieraztea, eta hori baliabide analogikoen bidez zein aplikazio digitalen bidez egitea.
- 3.2. Problemen eta proiektuen emaitzak komunikatzea baliabide analogikoen zein digitalen bidez.

4. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Eguneroko jarduketa sozial edo profesional-industrial batzuek osasunean eta ingurune naturalean duten eragina aztertzea, oinarri zientifikoetatik abiatuta ingurumenarekiko kaltegarriak diren joerak murriztu edo ekiditeko ohiturak hartu eta sustatzeko, garapen jasangarriarekin bateragarriak izateko eta organismo guztien eta planetaren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko, GJHeK jasotzen dutenaren arabera

4. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Gure planetaren ingurumena egoera larrian dago: kutsatzaile asko igorri ditugu, baliabide naturalak urriak dira eta gaizki banatuta daude eta hondakinen kudeaketa oso konplexua da. Horrek guztiak izaki bizidunen eta bereziki pertsonon ongizatean, osasunean eta garapen ekonomikoan zuzeneko eragina du.

Gizakion jarduketak eragin ditu planetak dituen arazoetako asko; horrenbestez, gero eta interes handiagoa dago gizartean ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko.

Aurrerabideen eta aurrerapen soziologikoen ondorioei buruzko kezka dela eta, planetaren sistemei eragiten dieten prozesuak, ohiturak eta jarrerak ezagutu eta aztertzeko beharra handiagoa da, ezinbestekoa baita horietan esku hartzea eta etorkizunean akats berdinak ez errepikatzeko zuzenketa eta prebentzio neurriak hartzea.

Hala, zientzia eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak oso lagungarriak dira bizimodu jasangarriagoa eta ingurumenarekiko errespetuzkoak sustatzeko, erreferentziazat hartuta Garapen Jasangarriako Helburuak eta Agenda 2030a.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: STEM2; STEM5; KPSII2; EK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 4.1. Ongizatea eta osasuna hobetzera bideratutako ekintzak proposatzea eta zabaltzea; horiek ingurumena errespetatu beharko dute, garapen jasangarriarekin bateragarriak izan beharko dute eta GJHen esparruan sartuta egon beharko dute.
- 4.2. Gizakiok eginiko eta geure osasunerako, gainerako organismoendako eta planetarendako kalteak eragiten dituzten prozesu eta jarduketak identifikatzea eta modu justifikatuan baztertzea.

5. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Plataformak, tresna eta baliabide digital eta teknologikoak (taulak, grafikoak, txostenak, irudiak, etab.) modu eraginkorretan hautatzen eta erabiltzen jakitea, banaka zein talde lanetan, eta pribatutasuna eta egile eskubideak gordetzen jakitea. Hala, garapen pertsonala, banakako ikasketa eta sormena sustatuko dira lan eta proiektuen emaitzak adierazten dituzten materialak sortzean.

5. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Gaur egun, kalitate eta erabilgarritasun handiko tresna digital asko dagoenez, ikerketa zientifikotako datuak modu zehatz eta erakargarrian antolatzen eta irudikatzen ahal ditugu (taulen, grafikoen, irudien, txostenen eta abarren bidez), gerora lan horiek ulertzea, azaltzea eta zabaltzea errazagoa izan dadin.

Halaber, elkarlaneko plataformei esker, banaka zein taldean ikastea errazten duten inguruneak ditugu eta bertan ikasleek sortutako materialen gordailuak zein ikasleek kontsultatzen ahal dituzten materialak daude.

Ikasprozesuaren barruan, ikasleek barneratu behar dute eskuragarri dauden materialak aurretik eginiko lanak direla, eta egile eskubideak errespetatu eta aintzat hartu behar direla indarrean dagoen legeriari jarraikiz. Horri esker, irudiak, grafikoak, testuak eta antzeko informazio baliabideak erabili ahal izatea informazio horren katalogazioaren araberakoa izanen da; ikasleek behar bezala aipatu beharko dute erabilitako informazioaren iturria eta egilea, eta pribatutasuna errespetatu beharko dute.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; HKK2; ELK2; ELK3; ELK4; KKA3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 5.1. Sormenezko materialak egitea beste lan eta proiektu batzuen emaitzekin, betiere pribatutasuna eta egile eskubideak errespetatuta.
- 5.2. Datu zientifikoa komunikatzea eta aurkeztea, eta horretarako plataforma, tresna eta baliabide egokiak modu efizientean hautatzea.

6. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Hausnartzea zientziaren alderdi eta prozedura etikoei buruz eta zientziako arloetan dagoen aukera berdintasunari buruz iritzi propio eta autonomo bat sortzeko, baita zientziak gure egunerokoan eta gizartean eginiko ekarpenez jabetzeko ere (ekonomia, ingeniariaritzza, arkitektura, artea, etab.).

6. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Jarduera zientifikoa garatzeak bat egin behar du arau etiko batzuekin, eta horiek jardunbide ego-kien jarduketak definituko behar dituzte, deontologiako tolerantzia muga batzuen barruan, aurrerapen zientifiko eta teknologikoen gainetik.

Ikerketen emaitzak kritikoki aztertzeko gaitasuna beharrezko oinarria da iritzi propio bat modu autonomoan osatzeko zientziari eta hark gizartean izaten ahal dituen aplikazioei dagokienez.

Zientziak gizartean eginiko ekarpenak edonon daude ikusgai: medikuntzan, ingeniariaritzan, industrian, arkitekturan, artean... Emakumeek eginiko ekarpenak agerian jarri eta baloratu behar ditugu, eta gaitasun eta konpetentzia berdintasuna oinarri izanik ikerketa-lanerako sarbidea eman eta aukera berdintasuna bermatu behar da, genero arrazoiengatik diskriminazioa alde batera utzita.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK5; STEM2; HK2; HK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 6.1. Zientziak gizartean eta egunerokoan egin dituen ekarpenez jabetzea, eta zenbait arlotako ikerketaren garrantzia justifikatzea.
- 6.2. Iritzi propio bat modu autonomoan sortzea zientziaren alderdi eta prozedura etikoei buruz eta zientziako arloetan dagoen aukera berdintasunari buruz.

7. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Autoezagutzarako trebetasun pertsonalak garatzea eta emozioak identifikatzea eta kudeatzea, ondoren banaka zein taldeka lan egin ahal izateko, rol bat baino gehiago hartu ahal izateko eta autoebaluazioak zein koebaluazioak egiteko, eta, hala, berdinen arteko garapena, inklusioa eta zientzian zein gizartean genero estereotipoen ezabatzea sustatzeko.

7. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Emozioak kudeatzea ezinbestekoa da banaka ikasteko zein taldean lan egiteko. Emozioak behar bezala kudeatzeko erabili behar dugu bakoitzaren emozioen autoezagutza pertsonala, eta behar izanez gero laguntza eskatzeko gai izan behar dugu.

Taldean lan egitean, besteak beste, ezinbestekoa da kide guztien arteko errespetua egotea eta taldekide guztien arteko berdintasuna bermatzea, sexu, kultura eta abarreatik diskriminaziorik egin gabe eta dibertsitatea ikasteko aukera gisa hartuta. Rolak ezartzeak errazago egiten du taldeak arrakasta izatea eta ezarritako helburuak betetzea. Halaber, banakako lanaren autoebaluazio eta taldeko lanaren koebaluazio tresnak oso baliagarriak dira ikasleak motibatze eta hobetu beharreko puntuak aintzat har ditzaten.

Bakoitzaren gaitasunen autoezagutza oinarritzakoa da taldean ongi lan egiteko, bakoitzak egiten ahal duen ekarpena zer-nolakoa den jakiteko eta zer laguntza behar duen jakiteko. Hala, autoebaluazioa eta koebaluazioa oso baliagarriak dira horretarako.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; HKK5; KPSII1; KPSII3; KPSII4; EK2; KKAK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 7.1. Talde batean funtzio zehatz bat erantzukizunez betetzea, behar denean espazio digitalak erabiltzea, ekarpen esanguratsuak egitea eta ikaskideen eta norberaren ekarpen pertsonalak kritikoki aztertzea autoebaluazio eta koebaluazio tresnen bidez.
- 7.2. Banaka zein taldeka lan egitea, emozioak kudeatzea, gainerakoen dibertsitatea eta iritzi aniztasuna errespetatzea eta ikasle guztien inklusioa sustatzea.

2.–OINARRIZKO JAKINTZAK

A.–Oinarrizko trebetasun zientifikoak.

- A.1. Metodo zientifikoa erabiltzea gertakariak, fenomeno naturalak eta abar ikertzeko, eta metodoaren fase hauek aplikatzea: behaketa, galderak edo problemak formulatzea, lortutako datuak eta emaitzak aztertzea eta hipotesiaren baliotasunaren egiaztatze esperimentala.
- A.2. Esperimentazioa garrantzitsua da gai zientifiko zehatz bati modu egokian erantzuteko, horretarako dagozkion tresna eta espazioak (laborategia, gela, ingurunea...) erabiliz. Laborategiko oinarrizko materiala, erabilera segurua, laborategian lan egiteko eta segurtasun arauak, arriskuak, piktogramak, NBEak.
- A.3. Hizkera zientifiko egokia (zehaztasuna, doitasuna, hiztegi espezifikoak) erabiltzea eta unitate sistemen zein matematikako tresnen erabilera egokia egitea; hartara, komunikazioa argia, koherentea, arrazoitua eta eraginkorra lortzeko ikaskuntza eta zientzia inguruneetan.
- A.4. Praktiken txostenak, ikerketa proiektuak eta abar aurkezteko formatu analogiko eta digitalak erabiltzea, eta proiektu edo txosten zientifikoak eskematizatzea edo egituratzea (aipatu metodo zientifikoaren faseak aplikatuta).
- A.5. Izen handiko zientzialarien lorpenak biologiaren, fisikaren eta kimikaren garapenean eta egungo gizartearen garapenean eta hobekuntzan.
- A.6. Informazio zientifikoa lortzeko iturri fidagarriak hautatzea, errekonozitzea, erabiltzea eta behar bezala aipatzea.

B.–Zenbakizko zentzua.

- B.1. Zenbaki naturalak, osoak, dezimalak, arrazionalak eta irrazional garrantzitsuenak (erro karratua, π) interpretatzea eta erlazionatzea, zenbakizko zuzenean antolatzea eta behar bezala hautatu eta erabiltzea hainbat testuingurutako informazio kuantitatiboa interpretatzeko.
- B.2. Zenbaki naturalekin, osoekin, arrazionalekin edo dezimalekin eragiketak eta eragiketa konbinazioak egitea horien hierarkia aintzat hartuta (batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta esponente oso baten potentziak), eta testuinguru zehatz bateko eguneroko problemak ebazteko eta gure inguruneke egoera sinpleak ikertu eta ulertzeko egokienak hautatzea.
- B.3. Zenbakien magnitude ordena, eta kantitateak modu egoki eta zehatzean adierazteko idazkera zientifikoa errekonozitzea eta erabiltzea.
- B.4. Kalkulu estrategiak: kalkulu mentala, eskuzkoa eta kalkulagailu zientifikoarekin. Eguneroko erabakiak hartzera bideratutako kalkulu errealistak.
- B.5. Multiplo eta zatitzaileak, zenbaki osoak faktore lehenetan deskonposatzea, multiplo komunetako txikiena eta zatitzaile komunetako handiena kalkulatzeko eguneroko problemak ebazteko (aurreko ikasmailetakoko errepasoa).
- B.6. Kantitateen, arrazoen eta proportzioen arteko lotura. Magnitudeen erlazio zuzena eta alderantzizkoa egitea eta hiruko erregela erabiltzea hainbat testuingurutako problemak ebazteko arau ia unibertsal gisa (eskalak, erosketak, laborategia, ekonomia, osasuna, banaketak...).
- B.7. Portzentajeak: hainbat egoeratan adieraztea, kalkulatzeko eta erabiltzea. Portzentajearen gehitze eta gutxitzeak: horrekin lotutako eguneroko problemak ebaztea.

C.–Neurriaren zentzua.

- C.1. Neurrien estimazioa eta erlazioak, neurketa egoera errealetan zehaztasun gradua modu justifikatuan erabakitzea (dagozkion neurketa aparatua eta unitatea hautatzea). Neurri esperimentaletan eginiko errorea estimatzea eta baloratzea, eta lan zientifikoan metodoak eta neurrien zehaztasunak duten garrantzia baloratzea.
- C.2. Geometria laua: Angeluak (neurria eta sailkapena). Poligonoak (elementuak eta sailkapena). Triangelu motak. Triangelu laukizuzenak eta Pitagorasen teorema. Pitagorasen teorema aplikatzea hainbat testuinguru errealetako problemak ebazteko.
- C.3. Forma geometrikoak dituzten inguruko objektuen (triangelu, lauki eta poligono erregularrak) areak eta perimetroak kalkulatzeko dagozkion formulak behar bezala aplikatuta. Zirkulua eta zirkunferentzia, inguruko objektu zirkularren area eta perimetroa kalkulatzeko dagozkion formulak aplikatuta.
- C.4. Hiru dimentsioko geometria: irudiak identifikatzea, deskribatzea eta sailkatzea. Inguruko objektuetan dauden zilindro, prisma, kono, esfera eta piramideen areak eta bolumenak kalkulatzeko.

D.–Zentzu espaziala.

- D.1. Bi eta hiru dimentsioko forma geometrikoak: deskribapena eta sailkapena, ezaugarrien arabera.
- D.2. Objektu geometrikoak sortzea marrazteko tresnekin, manipulazio tresnekin eta tresna digitalekin (geometria dinamikoko programak).
- D.3. Naturan, artean eta eraikuntzetan dauden zentroak, ardatzak, simetria planoak, irudi geometriko laukak eta hiru dimentsiotako irudi geometrikoak identifikatzea.

E.–Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala.

- E.1. Aldagaia, hizkera aljebraikoa ulertzea eta erabiltzea. Eguneroko egoeren formulazio aljebraikoa egitea lehen eta bigarren mailako ekuazioen eta bi ekuazio linealen sistemen bidez.
- E.2. Ekuazio lineal eta koadratikoak, problemak ebazteko testuinguruetan ebazpen aljebraiko eta grafikoak egitea.
- E.3. Aldagaien arteko lotura adierazteko modua: zuzena, alderantzizkoa, koadratikoa, enuntziatuak, taulak, grafikoak, adierazpen analitikoa, formulak. Funtzio batean ikasi beharrekoak: eremua eta ibiltartea, jarraitutasuna eta jarraitutasunik eza, hazkundea eta beherapena, maximoak eta minimoak, ardatzekiko ebakiguneak, maldak...
- E.4. Funtzioak: egoera errealetan informazio garrantzitsua interpretatzea, funtzio linealak, funtzio koadratikoak, alderantzizko proportzionaltasuneko funtzioak...

F.–Zentzu estokastikoa.

- F.1. Biztanle lagin bat ikertzeko intereseko ezaugarriak edo aldagaiak (aldagaiak sailkatzea), lagina hautatzea, galderak sortzea, datuak bilatzeko estrategiak (inkestak, Googleko inprimakiak), datuak biltzeko eta antolatzekeko estrategiak (maiztasun taulak).
- F.2. Zentralizazio neurriak (batezbestekoa, mediana, moda) eta dispersio neurriak (heina, bariantza, desbideratze estandarra), eskuzko kalkulua eta kalkulatu-erri bidezko kalkulua eta arrazoiatutako ondorioak ateratzea. Zenbait lagin konparatzea horien zentralizazio eta dispersio neurriak aintzat hartuta.

- F.3. Adierazpide grafiko egokiak: barra-diagramak, maiztasun poligonoak, histogramak, sektore-diagramak...
- F.4. Taula eta grafiko estatistikoak: eguneroko testuinguruen analisia eta interpretazioa.
- F.5. Fenomeno deterministak eta ausazkoak. Zoria eta probabilitatea: maiztasun erlatiboak. Laplace-ren erregelak, aldeko kasu eta kasu posibleak zenbatzeko teknikak, hainbat testuingurutan eginiko esperimentu sinpleetan erabakiak hartzea.

G.–Izaki bizidunak eta ohitura osasungarriak.

- G.1. Materia bizidunaren antolaketa: zelula, unitate estruktural eta funtzionala. Zelula motak. Birusak: izaki bizidunak?
- G.2. Giza gorputzaren funtzionamendurako aparatuak eta sistemak (nutrizio, harreman eta ugalketa funtzioak). Elikadura eta nutrizioa: elikagaien sailkapena eta osaera; etiketatzea.
- G.3. Organoak ematea eta transplantatzea.
- G.4. Ugalketaren, sexuaren eta sexualitatearen arteko bereizketa egitea. Sexu praktika arduratsuak. Preserbatiboa erabiltzea nahi gabeko haurdunaldiak eta STGak prebenitzeko. Sexu askatasun eta aniztasunarekiko zein genero berdintasunarekiko errespetua.
- G.5. Gaixotasun infekziosoak: kausak, prebentzioa eta tratamendua. Sistema immunea eta haren papera gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta gainditzeko. Gaixotasunak prebenitzeko txertoak (hartutako immunitatea) duten garrantzia aintzat hartzea. Antibiotikoen erabilera arduratsua.
- G.6. Osasun mentala eta desgaitasunarekiko sentsibilizazioa. Desgaitasunen bat duten pertsonen ikusgarritasuna eta gizarte-inklusioa.
- G.7. Bizimodu osasungarria: dieta osasungarri eta jasangarria, ariketa fisikoa, postura ohiturak, loaren higieena, estresaren kontrola, mendekotasunen prebentzioa (jokoa, drogak, sareak, etab.).

H.–Lurraren dinamika, arriskuak eta jasangarritasuna.

- H.1. Atmosfera, hidrosfera, biosfera eta geosfera elkarri lotutako sistemak gisa. Lurra interfase gisa: osaera, mantentzea eta bizitzarako duen garrantzia.
- .2. Ekosistemak eta haien osagaien arteko loturak integratzen dituzten elementuak. Ekosistemak eta dibertsitatea babestea garapen jasangarriaren bidez.
- H.3. Klima-aldaketa: kausak eta izaki bizidunendako, planetarendako eta ekosistemendako ondorioak. Klima-aldaketa kontrolatzeko neurriak.
- H.4. Lurraren barne eta kanpo dinamika: gertatzen diren prozesuak eta arrisku naturalekin eta suteekin duten lotura. Plaken tektonikaren teoria Lurraren barne geodinamikan, eta nola islatzen den gainazalean (lurrikarak eta sumendiak). Paisaia interpretatzea.
- H.5. Arrisku geologikoen alderdi sozioekonomikoak desberdintasun sozialen arabera. GJHen eta Agenda 2030aren arloa.

I.–Materia eta haren aldaketak.

- I.1. Materiaren eredu zinetiko-molekularra: solidoen, likidoen eta gasen propietateak.
- I.2. Egutero erabiltzen ditugun sistema materialak substantzia puru edo nahaste (substantzia homogeneoak eta heterogeneoak) gisa sailkatzea. Disoluzioak: osaera eta kontzentrazioa. Laborategian nahasteak bereizteko teknikak. Disoluzioak prestatzea
- I.3. Atomoaren egitura (gaur egungo eredura iritsi arteko zenbait eredu aztertzea), banaketa elektronikoa, anioiak, katioiak, isotopoak. Elementuen izena eta sinboloa. Taula periodikoa:

elementu ohikoenen propietateak eta lotura motak. Konposatu bitar sinpleen formulazioa eta izena, IUPACen arauak erabilia (oxidoak, hidruroak eta azido hidarzidoak eta gatz bitarrak), eta zenbait konposatu hirutarren formula kimikoa (azido oxoazidoak eta gatz garrantzitsuak eguneroko egoeretan).

- I.4. Erreakzio kimikoak: ekuazio kimiko sinpleak, interpretazio kuantitatibo eta kualitatiboa, doitze eta kalkulu estekiometrik sinpleak. Erreakzioetan eragina duten faktoreak. Erreakzio kimiko ohikoenak naturan.
- I.5. Kimika gure inguruan: azidoak eta baseak, sendagaiak, elikagaiak, arropa. Kutsadura: ozono geruza suntsitzea, berotegi efektua eta euri azidoa. Uretan eta lurzoruan jartzen diren pestizidak eta ongariak (metal astunak, marea beltzak...).

J.–Interakzioak eta energia.

- J.1. Gorputzen mugimendua egoera errealean. Magnitude zinematiko zuzenak. Ekuazioak eta higidura uniformearen eta higidura uniforme azeleratuaren grafikoak. Higidura problemak hurbileko egoeretan; unitate egokiak.
- J.2. Indarrak eta aldaketak sistemetan; deformazioak eta higidurak. Bektoreak. Newtonen hiru legeak eguneroko egoeretan; gizarteari eginiko ekarpena. Newtonen grabitazio unibertsalaren legea.
- J.3. Energia: nola agertzen den naturan eta eraldaketak. Energia motak (termikoa, mekanikoa, kimikoa, elektrikoa, nuklearra, elektromagnetikoa, soinua). Energia iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak, analisi kritikoa eta energia berriztagarrien erabilerari eta kontsumo jasangarriko ohiturei buruzko argudiaketa.

K.–Zentzu sozioemozionala.

- K.1. Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak ezagutzeko eta jakin-mina, ekimena, pertseberantzia eta erresilientzia garatzeko estrategiak, bai eta ikasteko eta zientzia ulertzeko plazerarena ere.
- K.2. Malgutasun kognitiboa eta aldaketetarako jarrera irekia areagotzen duten estrategiak, eta akatsa ikasteko aukera bihurtzen laguntzen dutenak.
- K.3. Talde-lana, jokabide enpatikoak eta gatazkak kudeatzeko estrategiak erabiltzea optimizatzen dituzten lankidetzateknika.
- K.4. Jarrera inklusiboak eta genero berdintasunaren aldekoak sustatzea, eta gutxiengoak errespetatzeko eta ikasgelan zein gizarteetan dagoen aniztasuna onartzeko jarrerak ere sustatzea.

HIZKUNTZA ETA GIZARTEA ESPARRUAREN CURRICULUMA

HIZKUNTZA ETA GIZARTEA ESPARRUA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean ikasleek izan beharreko irteera-profilean ezarritako gako konpetentziak eskuratzeko, hori ahalbidetu eta bermatuko duen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu bat ezarri behar da. Horretarako, esparru honetako curriculuma ezarri da. Geografia eta Historia, Gaztelania eta Literatura, eta Hizkuntza Koofiziala eta Literatura (halakorik badago) irakasgaiak hartzen ditu barne eta esparruko curriculumeko elementu eksklusiboak garatzen ditu. Horiei esker bermatu egiten da ikasleek gako konpetentzia horiek barneratuko dituztela, eta, gainera, irakasleen irakaslanerako marko gisa erabiltzen ahal dira.

Aniztasuneko curriculum hau aniztasunari erantzuteko neurri bat da bere horretan. Izan ere, ikaskuntza oztopoak dituzten ikasleendako prestatuta dago. Aurreko ikasturteetan laguntza jaso bade, curriculum honi esker, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko konpetentziak barneratzen ahalko dituzte.

Curriculumeko elementuen planteamendua osatzeko, ikaskuntza prozesu malgu, jarraitu eta ireki gisa hartu da, zeina ikasleen egoera, behar eta interesetara egokitu behar baita. Curriculumeko elementu guztiak (konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio irizpideak eta oinarritzko jakintzak) ikasleek etapa amaitzean lortu beharreko profila izan dezaten prestatu dira, eta, horretarako, esparruka banatu dira. Hala, DBH amaitzean izan beharreko irteera-profilaren gako konpetentziak oinarri izan dira konpetentzia espezifikokoak idazteko. Era berean, ebaluazio irizpideak eta oinarritzko jakintzak prestatzeko aintzat hartu dira hizkuntza eta gizarte esparruko irakasgaien curriculumeko elementuak (Geografia eta Historia, Gaztelania eta Literatura eta Hizkuntza Koofiziala eta Literatura –halakorik badago–).

Curriculum honetan bereziki garrantzitsuak izanen dira honako elementu hauek: dimentsio komunikatiboa, praktika diskurtsiboen aniztasuna eta konplexutasuna, eta, batez ere, hezkuntzaren eta gizartearen eremuetan hizkuntzaren erabilera egokia eta hizkuntzaren funtzionamenduari eta haren erabilerari buruzko hausnarketa. Halaber, esparru honetan sartuko dira hiritar aktibo eta konprometituak sortzeko beharrezko elementuak (kultura aniztasuna eta hiritartasuna). Horiek lantzeko, oinarritzko ikaskuntzak dira hauek: informazioarako eta informazio iturrietarako sarbidea eta horren hautapen kritikoa egitea, ikasitakoa bertako zein munduko testuinguruan aplikatzea, egoerak eta problemak ikuspegi historiko batetik abiatuta, Garapen Jasangarrirako Helburuek ezarritako erronkak, solidaritatea eta gizarte kohesioa gauzatzea, kultura eta gizarte aniztasuna errespetatzea, ondarea baloratzeta eta mantentzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna defendatzea eta diskriminazioaren aurka lan egitea.

Ebaluazio irizpideen bidez, neurtzen ahal da ikasleek zenbateraino lortzen dituzten konpetentzia espezifikokoak. Ebaluazio irizpideen graduazioa ikasleen heldutasunak eta garapen psikoebolutiboak markatzen dute; graduazioak bermatu beharko du heldutasun eta garapen hori ikasleen esperientzietara, ezaugarrietarako eta egoeretakoko egokiak direla.

Azkenik, oinarritzko jakintzek biltzen dituzte ikasgaiaren konpetentzia espezifikokoak eskuratzeko behar diren ezagutzak (zerbait jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea), eta ahalbidetzen dute ikaskuntzak irizpideen bidez ebaluatzen.

Esparru honetako curriculumeko elementuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken bi ikasturteetan landu beharko dira; edonola ere, oinarritzko jakintzak eta ebaluazio irizpideak sekuentziatzen ahalko dira ikasleen ezaugarrien eta irakaslearen irizpidearen arabera. Konpetentzia bidezko irakaskuntzan, irakasleek testuinguru zehatz batean kokatutako diziplinarteko jarduera eta ataza esanguratsuak planteatzen ahal dituzte. Gainera, ikaslea irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuko ardatz izanen den ikaskuntza egoerak sortzen ahal dituzte metodologia aktiboek esker (ikaskuntza kooperatiboa, problemetan edo proiektuetan oinarritutako ikaskuntza). Horretarako, ezinbestekoa izanen da ikasleen interesak eta egoera espezifikokoak aintzat hartuko dituzten eta ikaskuntza gero

eta autonomoagoa bultzatuko duten gaitasunak eta estrategiak lantzea, bizitza osoan iraunen duen ikaskuntza gauzatzeko oinarri finkoak eraikitze aldera.

Irakasleen lana ez da izanen hasiera eta amaiera argia duten eduki estatikoak lantzea; aitzitik, ikasleei baliabide egokiak eskaini beharko dizkiete haiek estimulatzeko behaketa, konparazio, azterketa, arrazoiketa eta sormen estrategien bidez, besteak beste. Ikasleen arteko interakzioa sustatuko dute eta inplikazio handiagoa izan dezaten bultzatuko da. Hortaz, curriculum honen gidari izanen dira berdin arteko elkarrizketak, talde-lan kooperatiboak, aniztasunarekiko errespetua, metodologia aktiboak, irakaskuntza ikasleen testuinguru eta bizipenetarako hurbilpena, aspektu sozioemozionalak eta eguneroko problemen ebazpena.

1.-KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Gizarte zientziekin lotutako zenbait iturri eta hedabideetako (prentsa, Internet, sare sozialak, etab.) informazioa bilatzea, aztertzea eta interpretatzea, edukiaren eta iturriaren egiazkotasuna egiaztatzea hori kritikoki ebaluatzeko eta zenbait euskarri analogiko edo digitalen bidez aurkezteko, ahoz edo idatziz, hiztegi tekniko egokia erabiltzea.

1. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Gaur egun, oso eskura ditugu informazio iturri eta komunikabide asko (prentsa, Internet, sare sozialak, etab.), eta, gainera, edozein esparrutako ezagutzak azkar egiten du aurrera. Ondorioz, informazio kantitate ikaragarria dugu eta ezinbestekoa da hori hautatu eta kritikoki aztertzea, ondoren garrantzitsua dena gordetzeko eta eduki okerra edo nahasgarria duena baztertzeko.

Gizarte zientzien aplikazioetako bat, ikasleak motibatzen dituena, eguneroko gertakariak azaltzea eta hurbiltzea da, horiek marko geografiko eta historiko zabal batean kokatzea, hain zuzen ere. Beraz, gizarte zientziekin lotutako gaiei buruzko lan eta proiektuak gauzatzean, ikasleek horien inguruko informazioa bilatu behar dute, hori aztertu (kritika eta hausnarketa oinarri izanik) eta haien beharretara aplikatu. Horregatik, oso garrantzitsua da iturri eta informazio fidagarria identifikatzeko eta hautatzeko gaitasuna garatzea, horien egiazkotasuna berresteko, kritikoki erabili ahal izateko eta informazioa egiazkoa dela jakinik zabaltzeko, eta, hala, usteak eta gezurrak baztertzeko.

Gizarte zientzien arloko informazioa bilatzean, aztertzean eta azaltzean, oso garrantzitsua da hiztegi egokia erabiltzen ikastea, hizkera tekniko baina hartzaileei egokitutakoa izan dena erabiltzea ahoz zein idatziz.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK2; HKK3; ELK1; KD1; KD2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 1.1. Zenbait iturri erabiltzea informazioa aurkitu, hautatu eta antolatzea, eta, horretarako, estrategia analogiko zein digitalak aplikatzea, informazioaren fidagarritasuna ebaluatzea (zehatza ez den informazioa, gezurrak eta abar baztertzeko) eta horren egokitasuna ezartzea proposatutako helburuaren eta beharren arabera.
- 1.2. Ahozko edo idatzizko testuetan lortutako informazioa kritikoki aztertzea, eta honako hauek identifikatzea: informazio horren helburua, ematen dituen frogak, zer kasutan oinarritzen den, zer inferentzia aurkezten dituen eta zer ondorio ateratzen dituen. Hala, manipulazio eta desinformazio arriskua saihestuko dugu.
- 1.3. Gero eta modu autonomoagoan sortzea eduki propioak, hainbat iturritatik abiatuta, informazio egokiena bilatu eta hautatuz, hiztegi eta erregistro linguistiko egokia baliatuz, kontsultatutako iturriak aipatuz eta jabetza intelektualaren printzipioekiko kritikoa eta errespetutakoa izan den ikuspegia izanez.

2. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Plataformak, tresna eta baliabide digital eta teknologikoak (taulak, grafikoak, txostenak, irudiak, etab.) modu eraginkorretan hautatzen eta erabiltzen jakitea, banaka zein talde lanetan, eta pribatutasuna eta egile eskubideak gordetzen jakitea. Hala, garapen pertsonala, banakako ikasketa eta sormena sustatuko dira lan eta proiektuen emaitzak adierazten dituzten materialak sortzean.

2. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Gaur egun, kalitate eta erabilgarritasun handiko tresna digital asko dagoenez, gizarte zientziaren arloko ikerketetako eta proiektuetako datuak modu zehatz eta erakargarrian antolatzen eta irudikatzen ahal ditugu (taulen, grafikoen, irudien, txostenen eta abarren bidez), ondoren horiek ulertzea, azaltzea eta zabaltzea errazagoa izan dadin.

Halaber, elkarlaneko plataformei esker, banaka zein taldean ikastea errazten duten inguruneak ditugu eta bertan ikasleek sortutako materialen gordailuak zein ikasleek kontsultatzen ahal dituzten materialak daude.

Ezinbestekoa da ikasleek aitortzea eskuragarri dauden materialak aurretik eginiko lanak direla, eta ikastea egile eskubideak errespetatu eta aintzat hartu behar direla indarrean dagoen legeriari jarraikiz. Horri esker, irudiak, grafikoak, testuak eta antzeko informazio baliabideak erabili ahal izatea informazio horren katalogazioaren arabera izan da; ikasleek behar bezala aipatu beharko dute erabilitako informazioaren iturria eta egilea, eta pribatutasuna errespetatu beharko dute.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; HKK2; KD2; KD3; KD4; KKAK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 2.1. Tresna eta baliabide digitalak haien balioaren arabera modu egoki eta efizientean erabiltzea funtzio komunikatiboak garatzeko.
- 2.2. Lanak eta proiektuak aurkezteko sormena erabiltzea eta plataformak, tresnak eta baliabideak modu efizientean hautatzea, betiere egile eskubideak errespetatuz.
- 2.3. Ingurune digitalean lan egitea, ezagutzak partekatzea eta partekatutako proiektuetan edukiak modu kolaboratiboan sortzea.

3. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Identifikatzea egiturazko behar eta problema unibertsalak zein kultura eta gizarteek historian zehar esperientzia eremu batzuetan (estetika, zientzia, etika, politika edo erlijioa) proposatutako eta gauzatutako konponbideak, eta, horretarako, ikerketa proiektuak egitea eta iturri fidagarriak erabiltzea, ondoren garapen jasangarriko ekarpenak eskaintzen dituzten proposamenak egiteko.

3. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Ezinbestekoa da ulertzea historian zehar gizarte baten kide izateko sentimenduak sortzen dituzten gizarte eta kultura balioak eta sistemak, horien adierazpenak errespetatzea eta ondare komun aberats bat izateko adierazpen kultural eta artistikoen garrantzia aitortzea. Ondare materialaren eta immaterialaren esanahi historikoa eta sinbolikoa ezagutzea eta horiek zaintzera, sustatzera eta herrien garapenerako baliabide kolektibo gisa duten balioa aitortzera bideratutako ekintzak sustatzea funtsezko prozesuak dira ondareon garrantziaz jabetzeko. Identitateari lotutako sentimenduak baloratu behar dira hainbat eskalatatik eta ondorioen arabera, kontuan hartuta sentimendu horiek kasu batzuetan eragin dituzten gatazkak eta jabetuta indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen sufrimendua aitortu beharra dagoela. Berezi garrantzitsua da lurralde kohesioaren eta elkartasunaren printzipioak integratzea, bai eta munduan gure presentzia ulertzea ere, mugak gainditzen dituen senidetasuneko konpromiso unibertsal batetik abiatuta, europeismoaren balioak eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik datozen printzipioak onartuta.

Halaber, nabarmentzekoak dira gizarte askok zenbait alorretan (teknologia, kultura...) aurrera egin izanaren alderdi positiboak, baina aurrerapen horien ondorioetako batzuen etika zalantzan jartzea ahaztu gabe: nazioarteko gatazkak, migrazioak, landa eremuko despopulazioa, klima aldaketa, etab.

Orobat, jarrera aktiboak eta parte-hartzekoak sustatu behar ditu konpetentzia honek ingurunea, oro har, hobetzearen alde –bai tokiko mailan, bai maila globalean–, eta baliabideak, esanahi orokorrean, modu justuan, ekitatiboan eta solidarioan banatzearen alde.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: ELK3; KPSII1; HK1; HK2; HK3; KKAK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 3.1. Gure errealitate kulturantzuna osatu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalak zein Europa eraikitze prozesua interpretatzea eta erlazionatzea, eta ondare historikoa, instituzionala, artistikoa, linguistikoa eta kulturala aztertzea eta ondare komun gisa identifikatzea.
- 3.2. Sistema demokratikoen eraketa azaltzea, baita giza eskubideen formulazio prozesua, horien ereduak eta garapena ere, eta komunitate barneko bizikidetzara arautzen duten konstituzioko balore eta printzipioak aditzera ematea.
- 3.3. Paisaiaren elementuak eta horiek naturan, landa-eremuan eta hiri-eremuan nola eratzen diren identifikatzea eta deskribatzea, eta gauza bera egitea denboran zehar gure ingurunea osatu duten eraldaketekin, eta ekosistemetan dagoen oreka maila baloratzea ere.

4. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Errealitate soziala, ekonomikoa eta kulturala ulertzea eta azaltzea ikuspegi historiko eta geografikoa oinarri izanda, errealitate horren jatorriari eta garapenari buruzko galderak sortzea eta komunean dugun ondare materialaren eta immaterialaren garrantzia azpimarratzea, lurralde kohesioa eta solidaritatea sustatzeaz gain, "europazaletasuna"osatzen duten baloreak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Garapen Jasangarrirako Helburuak ere sustatzeko.

4. konpetentzia espezifikoaren deskribapena.

Berebiziko garrantzia du gizarteak dituen problema eta erronkak ulertzea eta azaltzea. Komunitatean bizirauteko baliabideak lortzeko, erronka horiei aurre egin behar izan diegu, eta, horri esker, gai garrantzitsu asko landu ahal izan ditugu: baliabideak antolatzeke modua, gizartean parte hartzea eta baliabideak banatzea, besteak beste. Honako auzi hauei emandako erantzunetan eta sinesmen eta kultura adierazpen bidez emandakoetan oinarritu dira denboran zehar agertu diren zibilizazioak: ingurunearekiko interakzioa; gizarte harremanak antolatzeke modua eta boterearen erabilera. Iragana ulertzeari esker, oraina ulertzen ahal dugu, eta, hala, egungo zein etorkizuneko erronkak baloratu eta horiek gaitzetzeko proposamenak eta alternatibak sortzen ahalko ditugu. Alternatiba horiek, era berean, Garapen Jasangarriko Helburuak ulertzeke eta horietan ekarpenak egiteke baliagarriak izanen zaizkigu.

Proiektu, erronka edo problemen bidezko ikaskuntzari esker, ikasleek, banaka zein taldean, zenbait estrategia eta trebetasun jartzen dituzte abian, balio dietenak bizi diren munduan garrantzi edo interes berezia duten fenomenoak, egoerak edo gertakariak aztertu eta ulertzeke. Horrez gain, ikasteko modu honen bidez, ikaskuntza esanguratsurako ezinbestekoak diren gaitasun linguistikoak eta komunikatiboak erabiltzea sustatzen da.

Metodologia horiei esker, ikasleak beren ikaskuntza prozesuaren protagonistak dira eta ikaskuntzak sortzean rol aktiboa dute. Horretarako, ikerketa prozesuak sustatuko ditugu, eta ikasleek zenbait euskarri (irudikapen grafikokoak, kartografikoak eta bisualak) erabiltzen ikasteko sarbidea izan dezaten erraztuko dugu, baita hedabideen erabilera zuzen, kritiko eta eraginkorra izan dezaten ere.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifiko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK2; ELK1; KPSII3; HK3; EK1; STEM1; HK2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 4.1. Galdera esanguratsuak egitea banaka zein taldean egoera historiko, politiko, ekonomiko eta abarri buruz. Horien bidez gizartean dauden problemak identifikatu eta aztertu ahal izan beharko dituzte, galderei erantzuteke zer informazio behar duten baloratu beharko dute eta informazio hori antolatu eta aurkeztu beharko dute.
- 4.2. Historian zehar elkarbizitza eta baterako bizitza arautu dituzten mekanismoak ezagutzea eta azaltzea, gizartearen jatorritik hasi eta sortuz joan diren zibilizazioetara, sortu diren antolaketa sozial eta politikoko eredu nagusiak adierazita.
- 4.3. Gertakari historikoen artean dauden loturak aurkitu eta aztertzea, gaur egun iraganarekiko ditugun aldaketa edo jarraitutasun elementuak identifikatzea eta etorkizun hobea eraikitzeke ditugun aukerak atzematea.

5. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Ahozko eta idatzizko testuak, baita testu multimodalak ere ekoiztea, koherentzia, kohesioa eta naturaltasuna aintzat hartuta eta erregistro egokia erabilita, hautatutako diskurtso generoaren ezau-garriak mantenduz, arrazoibide propioak garatzeko, ezagutza eraikitze eta ahozko elkarriketetan errespetuz jarduteko, tresna analogiko eta digitalak erabiliz, adierazi beharrekua hainbat formatutan transmititzeko (irudiak, grafikoak, taulak, dokumentuak, etab.).

5. konpetentzia espezifikoaren deskribapena.

Ikasleen komunikaziorako konpetentzia garatzeko, ezinbestekoa da arreta eskaintzea ahozko erabilerei, ahozko erabilera horiek direlako hala ikasbide nola ezagupen. Hizkuntzaren eta gizartearen esparruan testuinguru anitzak eta esanguratsuak eskaini behar dizkiegu ikasleei, ahozko zein idatzizko ekoizpena egin dezaten eta bertan haien iritzia eman dezaten eta haien gizartearen problema eta egoerei buruzko hausnarketa sustatuko duten pedagogikoki orientatutako elkarriketetan parte hartu dezaten.

Ahozko interakziorako, beharrezkoa da hitza hartzeko eta emateko estrategiak ezagutzea, entzute aktiboko jarrerak zabaltzea, jartotasunez, argitasunez eta tonu eta erregistro egokiz mintzatzea, eta elkarriketarako lankidetzako eta hizkuntza kortesiako estrategiak erabiltzea. Ahozko produkzio formalak, bakarriketan nahiz elkarriketan, tarte bat ematen du planifikaziorako, eta, hortaz, idazteko prozesuaren estrategia berak ditu.

Komunikazio egoera zein den, daukan formaltasun-mailaren arabera, jarraibideak ezartzen dira diskurtsoa egituratzeko eta erregistroa eta hitzik gabeko jarrera egokitzeko, solaskideen harremanarekin, komunikazio xedearekin, kanalarekin eta diskurtso-generoekin –esparru desberdinetako berezko praktika komunikatiboek gauzatu dituzten moldeak–. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek formatu berriak eskaintzen dituzte ahozko komunikazio multimodalerako, izan sinkronoa nahiz asinkronoa, eta ikasleen ahozko ekarpenak erregistratzeko aukera ere ematen dute, testuinguru errealean zabaltzeko eta ondoren aztertu, berrikusi eta ebaluatzeko (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

Irakurtzeko konpetentzia garatzeak berekin dakar irakurketaren aurretik, bitartean eta ondoren erabili behar diren estrategien erabilera nabarmentzea, era guztietako testuen irakurle konpetenteak eta autonomoak trebatzeko. Testu bat ulertzeak esan nahi du haren esanahi orokorra eta informazio aipagarria antzematen direla irakurketaren xedearen arabera, informazio esplizitua integratzen dela eta beharrezko inferentziak egiten direla, hipotesiak egiten direla testuen azpiko asmo komunikatiboaz eta gogoeta egiten dela formaren eta edukiaren inguruan.

Idazten jakiteak esan nahi du, gaur, euskarri eta formatu desberdinetan idazten jakitea, horietako asko hipertestualak eta multimodalak direlako, eta horretarako, beharrezkoa da erabilera esparruen berezko praktika komunikatibo idatziak gauzatzeko moldeak ezagutu eta bereganatzea: diskurtso generoak. Horregatik, idazten irakatsi eta ikasteak eskatzen du arretaz eta etengabe hartzea esku ikasgelan. Testu bat idazteko prozesuan, formarik espontaneoena dutenak ere, guxtienez lau fase daude: planifikazioa –komunikazio xedea eta hartzailea zehaztea eta komunikazio egoera aztertzea, ereduak irakurri eta aztertzeaz gain–, testualizazioa, berrikuspena –autonomia izan daiteke, baina beste ikasle batzuekin partekatua edo irakasleek gidatua ere bai– eta azken testuaren edizioa.

Hezkuntzaren esparruan, idazketaren erabilera batzuk azpimarratuko dira: apunteak hartzeko eta eskemak, kontzeptu mapak edo laburpenak egiteko, eta testu akademikoak prestatzeko. Idatzizko testua osatzeko orduan, kontuan hartu behar dira informazioaren hautaketa eta antolaketa (koherentzia), testuaren alderdien eta hizkuntza marken arteko harremana (kohesioa), erregistroaren hautaketa (egokitasuna) eta zuzentasun gramatikala eta ortografikoa eta egokitasun lexikoa. Beharrezkoa da, halaber, erabakiak hartzea idatzizkoaren tonuaz, pertsonak (igorlea eta hartzailea) diskurtsoan txertatzeaz eta hizkuntzaz eta estiloaz; hortaz, banandu ezinezkoak dira hizkuntzaren funtzionamenduaren gaineko gogoeta esplizitua eta erabileren gaineko proiektzioa.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoa honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; ELK2; KD3; KPSII4; KPSII5; EK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 5.1. Testu idatzien eta multimodalen idazketa planifikatzea, komunikazio egoera, hartzailea, xedea eta kanala kontuan hartuta; zirriborroak idaztea eta berrikustea, eta amaierako testu koherentea, kohesionatua eta erregistro egokia erabiltzea aurkeztea, lexiko-zehaztasunez eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin.
- 5.2. Ahozko azalpenak egitea, planifikazio-maila desberdinekin, norberaren intereseko edo interes ekosozial edo profesionaleko gaiei buruz, diskurtso-generoei dagozkien konbentzioekin bat, jarritasunez, koherentziaz, eta erregistro egokiz, hainbat euskarritan eta hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak erabiliz eraginkortasunez.
- 5.3. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ahozko interakzio informalean, talde-lanean eta elkarriketa egiteko ahozko egoera formalean, entzute aktiboko jarrerarekin eta elkarriketarako lankidetzako eta jendetasun linguistikoko estrategiekin.

6. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Adierazpen kultural eta artistikoak ezagutzea, konparatzea eta kritikoki baloratzea, eta bitartekoak, oinarriak, hizkuntzak eta adierazpideak (ikus-entzunezkoa, ikono bidezkoa, grafikoa, sinbolikoa, musikala, etab.) bereiztea, garrantzia ematea gizarteko aniztasun kultural eta linguistikoari eta Estatuan dagoen errealitate eleanitz eta kulturantzunari; norberaren estrategia, ezagutza eta ikuspuntuez jabetzea, kulturarteko egoeretan elkarriketa aberastuko duten errespetuzko erantzunak emateko.

6. konpetentzia espezifikoren deskribapena.

Gizartean dagoen kultura, hizkuntza eta arte aniztasuna ezagutzea eta baloratzea oso onuragarria izaten ahal da etapa honetan dauden ikasleendako. Hori dela eta, ikasleen esperientziaren parte izan dadila merezi du eta arreta espezifikoa eskaini beharko diogu.

Xede nagusia da ikasleak gai izatea kulturarteko elkarriketak izateko; elkarren artean uler daitezen sustatuko dugu, eta estereotipoen ondorioz dibertsitatearen inguruko pertzepzio desitxuratua izan dezaten ekidinen dugu. Konpetentzia honi esker, sentsibiltate artistikoa eta kulturala garatzen ahal dute ikasleek, eta balorazio kritikoa eta dibertsitatearekiko egokitzapena barneratuz gero, ikasleek errespetuz eta enpatiaz jokatzeko ahalko dute kulturarteko egoeretan.

Konpetentzia espezifikoki honi esker, ikasleek beste esperientzia, ideia, gizarte eta kultura batzuetan murgiltzeko aukera izanen dute, desberdina denarekiko interesa izatea sustatuko baita. Ikasleek kritikoki aztertuko dituzte beren zein beste batzuen perspektiba eta balore propioen sistemak, eta edozein diskriminazio edo estereotipoak indartzen dituzten jarrerak ekidinen dituzte. Helburu nagusia da partekatutako kultura bat eta jasagarritasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako gizartea sortzea, ondare komuna aberasten lagunduko duena.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoki honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK2; HKK5; ELK4; KPSII3; EK1; EK4; KKAK1; KKAK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 6.1. Diskurtsoen azpian dauden aurreiritziak, estereotipoak, balio judizioak eta segregazio jarrerak identifikatzea eta horietaz jabetzea, diskurtso horiek atzeman eta ekiditeko, eta gauza bera egitea egiturazko arrazakeriaren markak dituzten diskurtso etnozentriko edo androzentrikoen beste kultura edo gizatalderen pertzepzio eta interpretazioekin.
- 6.2. Gure komunitatean zein hartatik kanpo kultura eta hizkuntzaren errealitate nabarraren aberastasuna hautematea eta azaltzea, dibertsitatea elkar aberasteko elementu gisa hartzeko.
- 6.3. Ezaugarri komunak aztertzea jatorri kultura edo taldearen eta harremanetan sartzen diren gainerakoaren artean (antzekotasunak, konkomitantiak, aztarna historiko edo etnografikoak, hizkuntza maileguak, etab.).
- 6.4. Zenbait adierazpen eta formatu artistikotan oinarrituta, interpretazioak egitea eta transmititzea, eta, hala, sormena eta artearen bidezko adierazpenekiko errespetua sustatzea.

7. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA

Autoezagutza trebetasun pertsonalak garatzea eta emozioak identifikatzea eta kudeatzea ondoren banaka zein taldeka lan egin ahal izateko, rol bat baino gehiago hartu ahal izateko eta autoebaluazioak zein koebaluazioak egiteko, eta, hala, berdinen arteko hazkundera, inklusioa eta zientzian zein gizartean genero estereotipoen ezabatzea sustatzeko.

7. konpetentzia espezifikokoaren deskribapena.

Emozioak kudeatzea ezinbestekoa da banaka ikasteko zein taldean lan egiteko. Emozioak behar bezala kudeatzeko erabili behar dugu bakoitzaren emozioen autoezagutza pertsonala, eta behar izanez gero laguntza eskatzeko gai izan behar dugu.

Taldean lan egitean, besteak beste, ezinbestekoa da kide guztien arteko errespetua egotea eta taldekide guztien arteko berdintasuna bermatzea, sexu, kultura eta abarreatik diskriminaziorik egin gabe eta dibertsitatea ikasteko aukera gisa hartuta. Rolak rolak ezartzeak errazago egiten du taldeak arrakasta izatea eta ezarritako helburuak betetzea. Halaber, banakako lanaren autoebaluazio eta taldeko lanaren koebaluazio tresnak oso baliagarriak dira ikasleak motibatze eta hobetu beharreko puntuak aintzat har ditzaten.

Norberaren zein gainerakoen gaitasunak ezagutzean, errazagoa da talde-lanak egitea, kide guztien ekarpenak maximizatzen baitira eta lankidetzan aritzeko eta elkarri laguntzeko aukerak handitzen baitira. Hala, autoebaluazioa eta koebaluazioa oso baliagarriak dira horretarako.

Ikasleen profilarekin lotzea.

Konpetentzia espezifikoko honek lotura du irteera-profileko deskriptore hauekin: HKK1; HKK5; KPSII3; KPSII4; EK1; KKA3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK.

- 7.1. Norberaren erantzun emozionalak identifikatzea eta modulatzeko, eta, hala, ekiditea sentimendu obsesiboek, asaldagarriek edo ohikoek jarduna blokeatzea. Bizitako sentimenduak hitzezko zein ez-hitzezko hizkuntzarekin adieraztea eta sentimendua eta hori eragiten duena lotzea.
- 7.2. Gainerakoen emozioak antzematea eta ulertzea, ondoren haien ekintzak, jarrerak eta pentsamenduak hobeki ulertzeko eta haiekin harreman egokiak izateko.
- 7.3. Banaka zein taldeka lan egitean emozioak kudeatzea, pertsonen eta iritzien aniztasuna errespetatzea eta ikaskide guztien inklusioa ahalbidetzea.
- 7.4. Talde batean funtzio zehatz bat erantzukizunez betetzea, behar denean ekarpen esanguratsuak egitea eta ikaskideen eta norberaren ekarpen pertsonalak kritikoki aztertzea autoebaluazio eta koebaluazio tresnen bidez.

2.–OINARRIZKO JAKINTZAK

A.–Alfabetatze informazionala.

- A.1. Informazio iturriak: informazio fidagarria, egokia eta kalitate onekoa bilatzeko eta hautatzeko irizpideak.
- A.2. Manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak eta ondorioak.
- A.3. Testuen analisi kritikoa: hausnartzea zer helburu duten, zer datu eta esperientzia adierazten dituzten, zer ideia edo kontzeptu lantzen dituzten, zer ustetan oinarritzen diren, zer inferentzia egiten duten, zer ondorio ateratzen dituzten eta ondorio horiek zer ekarriko duten.
- A.4. Informazioa antolatzekeko estrategiak: idaztea pentsamendua antolatzekeko mekanismo gisa (oharrak, eskemak, kontzeptu mapak, laburpenak...).
- A.5. Aipuak eta erreferentzia bibliografikoak. Jabetza intelektuala eta haren formak.
- A.6. Ahozko, idatzizko eta modu multimodaleko ulermenerako, produkzioarako eta koprodukzioarako tresna analogikoak eta digitalak. Ikasteko, komunikatzeko eta beste ikaskide batzuekin proiektuak gauzatzeko hezkuntza-interakzio eta -elkarlaneko plataforma birtualak (ikaskela birtualak, bideokonferentziak, tresna digital kolaboratiboak...).

B.–Komunikazioa.

- B.1. Diskurtso generoak gizartean jarduteko modu gisa: diskurtso modalitateen egitura eta hizkuntza ezaugarriak.
- B.2. Ahozkoaren ulermena: testuaren zentzu globala eta testuko zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatu eta gordetzea. Igorlearen asmoa.
- B.3. Eremu pertsonalaren berezko diskurtso generoak: ahozko interakzioa. Elkarriketako lankidetzak eta hizkuntza kortesia. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarriketarako bidez konpontzea. Irakurketa dialogikoak.
- B.4. Ahozko produkzio formala. Informazioaren plangintza eta bilaketa, testualizazioa eta berrikusketak. Audientziara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak.
- B.5. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren ezaugarriak ahozkotutasun formalean. Ahozko deliberazio eta azalpen argudiatuak. Iritzi pertsonal kritikoa sortzea.
- B.6. Irakurriaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Hitzeko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoen erabilera diskriminazioak hautematea. Testuaren forma eta edukia baloratzea.
- B.7. Oinarrizko testu sekuentziak: narratiboak, deskribapenezkoak, elkarriketakoak, azalpenezkoak eta argudiozkoak.
- B.8. Idazmena. Plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan. Norberaren edo beste batzuen testuak ebaluatzea irizpideei jarraikiz.
- B.9. Testuak sortzeko jarraibideak; adibideak aztertu beharko dira eta elementu linguistikoak kontsultatu beharko dira (zuzentasun gramatikal eta ortografikoa, egokitasun lexikoa). Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak erabiltzea, euskarri analogikoan nahiz digitalean.
- B.10. Testuen ezaugarriak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna.
- B.11. Kohesio mekanismoak. Testuko lokailuak: Barne erreferentziako mekanismo gramatikalak (izenordain pertsonalak) eta lexikoak (errepikapenak, sinonimoak, hiperonimoak eta elipsia)

- B.12. Aditz formak koherentziaz erabiltzea testuetan. Lehenaldiak narrazioan. Aditz denboren korrelazioa kontatutako diskurtsoan.
- B.13. Oinarritzko hizkuntza unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren ezaugarrien adierazpena, kantitatea eta kualitatea, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora erlazioak, baieztapena, ezeztapena, galdera eta harridura, erlazio logiko oinarritzkoak.
- B.14. Puntuazio zeinuak, testu idatzia antolatzeke mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana.
- B.15. Hezkuntza esparruaren berezko diskurtso generoak: azalpen testu zientifiko eta humanistikoak, proiektuak diseinatzea, zeregin baten txostena, laburpena, testu iruzkina, saiakera, aurkezpena, konferentzia. Testu espezializatuen eta dibulgaziozko testuen arteko aldeak.
- B.16. Esparru sozialaren berezko diskurtso generoak. Sare sozialak eta hedabideak. Kazetaritza eta publizitate testuak: elementu garrantzitsuak eta egitura logikoa besterik gabe deigarri izaten ahal denaren gainetik. Txioa, memea edo ikonoa hizkera gisa.
- B.17. Etiketa digitala eta desinformazio, manipulazio eta pribatutasuna urratzeke arriskuak.
- B.18. Irudia eta osagai paratestualak aztertzea testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan. Ez-hitzezko hizkuntzaren garrantzia.
- B.19. Esparru profesionalaren berezko diskurtso-generoak: curriculum vitae, aurkezpen gutuna eta lan-elkarriketa.

C.–Literatura hezkuntza.

- C.1. Literatura testuen genero (narrazioa, antzezlan, testu lirikoak) edo azpigerenak.
- C.2. Estatuko eta munduko literatura ondareke zein egungo literaturako obra garrantzitsuen irakurketa gidatua.
- C.3. Gero eta autonomia handiagoarekin irakurtzea eta gogoeta egitea irakurritako testuen inguruan eta irakurtzearen beraren inguruan.
- C.4. Eraikuntza partekaturako estrategiak lanen interpretazioan. Literaturari buruzko eztabaidak edo elkarriketak. Literatur solasaldi dialogikoak.
- C.5. Obraren esanahiaren eraikuntza, haren elementu formalen eta kontestualen azterketatik abiatuta. Norberaren adierazpenerako baliabideen ondorioak harreran.
- C.6. Norberaren esperientzia, irakurritakoarena eta esperientzia kulturala mobilizatzeko estrategiak, irakurritako lana eta aktualitatearen alderdi batzuk lotzeko modu argumentatuan, baita beste testu batzuk eta beste arte adierazpen batzuk ere.
- C.7. Ereduen bidez kontatzea irakurketaren esperientzia eta irakurritako testuak bereganatu eta birstortzeko moduak.
- C.8. Irakurritako testuak erlazioan eta konparatzea ahozko eta idatzizko beste testu batzuekin eta beste testu multimodal batzuekin, beste arte eta kultura adierazpen batzuekin eta fikzioaren forma berriekin, gai, topiko, egitura eta hizkuntzen arabera.
- C.9. Literatura lanak eta zatiak informazio soziohistorikoan oinarrituta interpretatzeko estrategiak, aztertutako alderdi guztien integrazioetik abiatuta eta aintzat hartuta testuetako balio kultural, etiko eta estetikoak. Irakurtzea genero ikuspegiarekin
- C.10. Testuen irakurketa adierazkorra, dramatizazioa eta errezitazioa, kontuan hartuta parte hartzen duten ulertze, jabetze eta ahoskatze prozesuak.
- C.11. Testuak sortzea literatura hizkuntzaren konbentzioak bereganatuta eta emandako ereduen arabera (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, etab.).
- C.12. Testuetan edo irudietan literatura baliabideak txertatu eta atzematea.

D.–Hizkuntzak eta hiztunak.

- D.1. Inguruko hizkuntza aniztasunaren azterketa. Norberaren, herriaren eta zentroaren biografia linguistikoa.
- D.2. Espainiako hizkuntzak eta gaztelaniaren dialekto-aldaerak ezagutzea. Zeinu-hizkuntzak. Aurreiritzi eta estereotipo linguistikoak aztertzea eta zalantzan jartzea.
- D.3. Eskubide linguistikoak aztertzea, eta nola zehazten diren lege eta adierazpen instituzionaletan.
- D.4. Antzekotasunak bilatzea ikasleen hizkuntza eta dialektoen artean, hizkuntza batetik bestera transferitzen den lexikoa (erdarakadak) eta hizkuntzen funtzionamendu komuna ulertzea ahalbidetzen duen sintaxia nabarmentzea.

E.–Gaur egungo munduaren erronkak.

- E.1. Desberdinkeria, pobrezia eta injustizia tokian-tokian eta munduan oro har: baldintzatzaile politikoak, ekonomikoak, geografikoak, generokoak, finantzarioak eta komertzialak. Elkartasuna, gizarte kohesioa eta garapenerako lankidetzak.
- E.2. Gizakiak lurraldea eraldatzea eta baliabideen eta lanaren banaketa desorekatua. Giza aztarna eta ingurune naturalaren babesa. Larrialdi klimatikoa eta jasangarritasuna.
- E.3. Eraldaketa zientifikoak eta teknologikoak. Zientziaren eta teknologiaren dimentsio etikoa.
- E.4. Identitatearekin lotutako formazio politikoak: ideologiak, nazionalismoak, fundamentalismo erlijiosoak eta nazioz gaindiko mugimenduak.
- E.5. Kultura aldaketak eta gizarte mugimenduak. Hedabideak eta sare sozialak.
- E.6. Irudi mediatikoa, aurreiritziak, ezarritako ereduak eta joerak deseraikitzea. Nortasun pertsonala eta nortasun sozialak. Identitate propioa sortzea.

F.–Gizarteak eta lurraldeak.

- F.1. Denbora historikoa: denbora lerroak eraikitzea eta interpretatzea linealtasunaren, kronologiaren, aldiberekotasunaren eta iraupenaren bitartez.
- F.2. Kontzientzia historikoa. Iritzi propioak eta argumentatuak lantzea historikoki testuinguruan kokatutako gaurkotasun problemen aurrean. Iritziok defendatzea eta modu kritikoan azaltzea, aurkezpenen eta debateen bidez.
- F.3. Hominizazio prozesua eta haren mugarri nagusiak: tresnak, sinboloak, hizkuntza, artea, narrazioak, espiritualtasuna.
- F.4. Giza migrazio handiak eta kulturaren sorrera. Nomadismoa eta egoneko bizitza.
- F.5. Urbanizazio prozesua eta hari lotutako sistema sinbolikoak: hierarkia sozialak, jabetza, idaztea, dirua...
- F.6. Historian zehar egondako antolaera sozial eta politikoa: esklabotza, mirabetza eta hiritar-tasuna. Eredu araugileak eta justiziaren ideien garapena.
- F.7. Mundua ikusteko moduak, ekintzari zentzua ematen dioten errealitatea ulertzeko moduak: mitologia, erlijioa, filosofia, zientzia, artea, etab. eta haien garapena.
- F.8. Adierazpen artistikoen eta kulturalen esanahia eta funtzioa zibilizazioetan. Forma artistikoen garapena historian zehar.
- F.9. Gaur egun dauden eta iraganean egon diren egoera politiko, sozial eta artistikoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.
- F.10. Boterea, legitimazioa eta gauzatzeko moduak. Sistema politiko demokratikoak eta autoritarioak: sorrera, motak eta garapena.

- F.11. Munduko, Europako eta Espainiako historiaren mugarri nagusiak: kausak eta ondorio sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak.
- F.12. Trantsizioak, iraultzak eta erresistentziak: permanentziak eta aldaketak aro bakoitzean.
- F.13. Sistema ekonomikoen, ziklo demografikoen, bizimoduen eta gizarte antolaketako ereduen eboluzioa.
- F.14. Sistema kapitalista, hastapenetatik gaur egunera arte. Kolonialismoa, inperialismoa eta mendekotasun ekonomiko eta kultural berriak.
- F.15. Nazioarteko harremanak eta XX. mendearen lehen erdialdeko gatazken eta indarkerien azterketa kritiko eta konparatiboa. Totalitarismoak.
- F.16. XX. mendearen bigarren erdialdetik gaur egunera arteko oinarri geoestrategikoak: blokeen politika, deskolonizazioaren gatazkak eta munduko ordena berria. Nazioarteko erakundeen zeregina.
- F.17. Egitura ekonomikoak gaur egungo munduan, ekoizpen sektoreetako aldaketak eta merkatuen funtzionamendua.

G.–Konpromiso zibikoa: tokikoa eta globala.

- G.1. Banakako zein taldeko eskubideak lortzea; Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala: jatorria, justifikazioa eta egunerokoan dituen ondorioak.
- G.2. Gizarte, kultura eta genero aniztasuna: tolerantzia, integrazioa eta gizarte kohesioa. Migrazioak, kultura aniztasuna eta mestizajea gizarte irekietan. Arrazakeria, matxismoa eta diskriminatzeko beste modu batzuk.
- G.3. Ijitoen eta gure herrialdeko beste gutxiengo etniko batzuen historia eta aitortza.
- G.4. Lan eta gizarte eskubideen aldeko borroka: ongizate estatua.
- G.5. Herritartasun europarra eta globala: identitate komuna eratzekeo ideiak eta jarrerak. Europa eraikitzekeo prozesua: ekonomiaren, diruaren eta herritarren bateratzea. Europako erakundeak: jatorria, oinarritzko printzipioak, funtzionamendua eta eginkizunak.
- G.6. Araugintza-antolamendu autonomikoa, konstituzionala eta nazioz gairdiko, herritar gisa jokatzeko eskubide eta askatasunak garatzeko berme gisa. Memoria demokratikoa.
- G.7. Konpromiso zibikoa eta herritarren parte-hartzea. Bitartekaritza eta gatazkak bakebidez kudeatzea, eta indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei laguntzea.
- G.8. Komunitatearentzako zerbitzua. Zaintza-lanen mundua eta belaunaldien arteko harremanak. Erantzukizun kolektiboa eta indibiduala. Asoziazionismoa eta boluntarioria. Inguruneak eta sare sozialak.
- G.9. Gizarte kohesioa eta integrazioa. Berdintasunaren eta erabateko inklusioaren aldeko eta desberdinkeriaaren aurkako neurriak eta ekintzak.
- G.10. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna. Sexu- eta genero-aniztasunak eragindako diskriminazioa. Eskubideen konkista gizarte demokratiko garaikideetan.
- G.11. Globalizazioa, migrazio mugimenduak eta kulturartekotasuna. Gatazka ideologikoak eta etniko-kulturalak.
- G.12. Garapen Jasangarrirako Helburuekiko konpromisoa eta ekintza.
- G.13. Landa-inguruneak egungo gizarte jasangarria izan dadin mantentzeko egin duen ekarpena aitortzea. Natura zaintzea eta horri buruz ikastea.

H.–Autoezagutza, emozioak kudeatzea eta kooperazio harremanak.

- H.1. Emozioekin lotutako hiztegia definitzea eta modu konparatiboan aztertzea: sentimenduak, emozioak, desirak, motibazioak, izaera, nortasuna, ohiturak...

- H.2. Oinarrizko emozioak deskribatzea: mina, plazera, amorrua, poza, tristura, sorpresa, nazka (eta kulturak sortutako zein modulaturatutako sentimenduak), errealitatearekiko ditugun desirak eta motibazioak neurtzeko modu gisa hartzea.
- H.3. Norberaren egoera emozionala identifikatzea eta deskribatzea, eta horrek hartzen ditugun erabakietan nola eragiten duen errekonozitzea. Emozio bakoitzari lotutako gorputz zeinuak behartzea.
- H.4. Emozioei erantzuteko kontrol estrategiak, nahi den jarrera ildoak lortzera bideratutakoak. Ditugun sentimenduekiko erreakzionatzeko alternatibak.
- H.5. Emozio eta jokabide eskemak sortzea, gure helburuak betetzea errazagoa izan dadin: zorientasuna, bizikidetzatza, bizitzeko modu etikoak...
- H.6. Identifikatzea eta adieraztea geure buruari buruz ditugun usteak, zer gaitasun dugun proiektuei aurre egiteko eta zer uste ditugun beste pertsona batzuei buruz, eta, orokorrean, munduari buruz. Autoestimua zaintzea.
- H.7. Enpatia eta gupida lantzea: beste baten larruan jartzea zer den jakitea eta gainerakoen sentimenduak eta jarduteko modua bideratzen duten arazoak ulertzea.
- H.8. Gaitasun kooperatiboak garatzea: entzute aktiboa, ideiak eta iritziak partekatzea, laguntza eskaintzea eta eskatzea, talde-lana lideratzea, prozesua planifikatzea, zereginak eta rolak banatzea, parte-hartzea sustatzea, taldea animatzea, beste kide batzuen baieztapenak parafaseatzea edo birformulatzea, adostasuna lortzea, azaldutako ideiak sintetizatzea, galderak egitea, pertsonak kritikatu beharrean ideiak kritikatzeko...
- H.9. Helburu eta erronkak proposatzea, banaka zein taldean lantzeko, eta ikasleek eskuragarri dituzten baliabideetara egokitutakoak.
- H.10. Bizi proiektu baten osagaiak; hori osatzeko eta berrikusteko estrategiak. Izaera osatzea aurreiritzi edo estereotiporik gabe. Porrota, arbuioa edo akatsa etortzeko diren erronketarako identifikatzea abiapuntu, indargune, aukera edo esperientzia gisa.

II. ERANSKINA

CURRICULUM ANIZTASUNeko LEHENBIZIKO MAILAKO ASTEKO ORDUTEGIA

			LOMLOE (3. MAILA, CA)		
			G ETA G/A IKASTETXEAK G ETA A EREDUAK		D/A IKASTETXEAK D ETA A EREDUAK
			G	A	
Hizkuntza eta Gizartea esparrua			8		9
	Gaztelania eta Literatura				
	Geografia eta Historia				
	<i>Euskara eta Literatura</i>				
Atzerriko Hizkuntza			2		2
Zientzia eta teknologia esparrua			8		7
	Matematika				
	Biologia eta Geologia				
	Fisika eta Kimika				
Esparru praktikoa (1)			6		6
Gorputz Hezkuntza			2		2
Plastika, Ikus eta Ikus-entzunezko Hezkuntza			2		2
Erljioa / Hezkuntza Arreta			1		1
Tutoretza			1		1

CURRICULUM ANIZTASUNEKO BIGARREN MAILAKO ASTEKO ORDUTEGIA

		LOMLOE (4. MAILA, CA)		
		G ETA G/A IKASTETXEAK G ETA A EREDUAK		D/A IKASTETXEAK D ETA A EREDUAK
		G	A	
Hizkuntza eta Gizartea esparrua		8		9
	Gaztelania eta Literatura			
	Geografia eta Historia			
	<i>Euskara eta Literatura</i>			
Atzerriko Hizkuntza		2		2
Zientzia eta teknologia esparrua		8		7
	Matematika			
	Biologia eta Geologia			
	Fisika eta Kimika			
Esparru Praktikoa (1)		6		6
Gorputz Hezkuntza		2		2
Musika		2		2
Erlijioa / Hezkuntza Arreta		1		1
Tutoretza		1		1

III. ERANSKINA

TUTOREAREN TXOSTENA, CURRICULUM ANIZTASUNeko PROGRAMA BATEAN SARTZEARI BURUZKOA

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK.

Deiturak eta izena			Ikasturtea	
Jaioteguna		Jaiolekua (herrialdea)		
Jaioterria			NANa/AIZa/ANTa	
Helbidea				P.kd.
Herria			Telefonoa	
Ikastetxea				Maila

1. Zer arrazoi dauden pentsatzeko ikasleak zailtasunak dituela etapako helburuak lortzeko eta DBHko graduatu-titulua bide arruntetik lortzeko

JARRI X BAT	ERABAKIA HARTZEN LAGUNTZEN DUTEN FAKTOREAK
	Ikaslea ez dago mailaz igotzeko moduan, eta irakasle-taldeak uste du ikasmaila horretan beste urtebetez egotea ez dela onuragarria izanen haren bilakaera akademikorako
	Ikasleak zailtasun nabarmenak ditu ikaskuntza-arlo gehienetan
	Curriculum-egokitzapenak behar ditu arlo edo irakasgai gehienetan
	Arreta eta jarraipen indibidualizatuagoa eta sistematikoagoa izatea komeni zaio
	Metodologia globalizatzaile baten beharra du irteera-profilean zehaztutako gaitasunak lortzeko
	Bestelakoak

Helburuak zenbateraino bete dituen eta dagozkion gaitasunak eskuratu dituen jasotzen duen txosteneko datuak. Behin aztertuta ikaslearen ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa, zeina jaso baita behaketa sistematikoaren bidez, bai eta lanen balorazioaren eta proba espezifikoaren bidez ere, irakasle-taldeak uste du ikasle horrek zailtasunak izanen dituela etaparen helburuak eta irteera-profilean ezarritako gaitasunak lortzeko. Horregatik guztiagatik, irakasle-taldeak erabaki du Derrigo-

rezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko neurririk egokiena dela honako maila hau egitea:

- ☐ Curriculum Aniztasuneko Programaren lehenbiziko maila.
- ☐ Curriculum Aniztasuneko Programaren bigarren maila.
- ☐ Beste neurri batzuk (zehaztu):

_____ (e)n, ____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

TUTOREA

Sinatua: _____

IV. ERANSKINA

TXOSTEN PSIKOPEDAGOGIKOA, CURRICULUM ANIZTASUNeko PROGRAMA BATEAN SARTZEKO EGOKITASUNARI BURUZKOA

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK.

Deiturak eta izena			Ikasturtea	
Jaioteguna		Jaiolekua (herrialdea)		
Jaioterria		NANa/AIZa/ANTa		
Helbidea				P.kd.
Herria		Telefonoa		
Ikastetxea				Maila

Hezkuntza-historiaren laburpena, laguntza-neurriak eta curriculum-errefortzua	
Egin zaio ebaluazio psikopedagogikorik aurreko ikasturteetan? BAI EZ Erantzuna baiezkoa bada, adierazi noiz egin zen eta zer ondorio atera ziren:	
Jarduketak	BAI/EZ
Pedagogia terapeutikoko laguntza	
Bitan banatzea	
Tailer espezifikoak	
Taldekatze malguak	
Bestelakoak: (zehaztu)	

Zergatik irizten den Curriculum Aniztasuneko Programa dela neurririk egokiena etapako helburuak eta irteera profilean ezarritako gaitasunak lortzeko
Curriculum aniztasuneko programa batean sartzeko proposamena
☐ Ikasteko zailtasun pedagogiko nabarmenak ditu
☐ Pentsatzen dugu hori dela neurririk egokiena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko
☐ Salbuespenez, DBHko 2. maila curriculum egokitzapen esanguratsuekin egin ondoren
☐ Salbuespenez, Espainiako hezkuntza-sisteman berandu sartu delako
☐ Salbuespenez, DBHko 3. edo 4. mailan sartu delako absentismo larriko aldi bat baino gehiago igaro ondoren.
☐ Salbuespenez, irakasle-taldeak hala proposatuta, ikasturte hasieran egiten den hasierako ebaluazioaren ondoren

Curriculum aniztasuneko programa batean sartzeko proposamena

☐ Programako lehenbiziko maila (DBHko 3. maila)

☐ Programako bigarren maila (DBHko 4. maila)

Bestelako hezkuntza-neurrien proposamena

(Curriculum-egokitzapen esanguratsua, hezkuntza errefortzua eta sartzeko curriculum-egokitzapena, etab.)

Ikaslea curriculum aniztasuneko programa batean sartzeko proposamena ragin duten ikaskuntza-zailtasun garrantzitsuen identifikazioa

(Zenbatetsitako balorazio-maila: 1 oso txikia, 2 txikia, 3 normala, 4 handia, 5 oso handia)

1

2

3

4

5

Arlo kognitiboa

Arreta

Inputasibotasun-maila (1)// hausnarketa (5)

Memoria mekanikoa (1)// Ulermenean oinarritutako memoria (5)

Kontzentrazioa

Ikaskuntza-erritmoa

Irakurmena

Idazmena

Mintzamina

Problemak ebatzea

Kalkulua

Arrazoibide matematikoa

Sormena

Metakognizioa: zeregina planifikatu, monitorizatu eta ebaluatu egiten du

Arlo emozionala

Lanak egiteko errefortzua behar du

Bere emozioak kudeatzeko gai da, bere erreferentzia-taldeari dagokionez

Aurre egiten dio nekeari

Aurre egiten dio frustrazioari

Pertseberantzia

Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan

Interesa

Kontuan hartzen ditu jarraibideak

Ukertzen ditu jarraibideak

Adierazten du laguntza behar duela

Aktiboki parte hartzen du

Eguneroko zereginen jarraipen estua behar du

Ikasteko motibazioa eta autoestimu-maila					
Badu ikasteko interesa					
Bere ahaletara doitutako espektatibak ditu					
Irakasleen onespena bilatzen du etengabe					
Uste du bere emaitza akademikoak berak egindako ahaleginari dagozkiola					
Uste du bere emaitza akademikoak berak egindako ahaleginarekin zerikusirik ez duten arrazoen ondorio direla					
Uste du gai dela ikasketa-maila hau gainditzeko					
Gelako giroan eta ikaskideen artean nola egokitzen den					
Egokitzen da gelako bizikidetzara					
Egokitzen da ikastetxeko bizikidetzara					
Irakasleei behar bezala zuzentzen zaie					
Ikaskideekin integrazio eta parte-hartze sozial egokia du					
Bizikidetzaren aurkako jokabideak izaten ditu					
Interesa izan dezakeen bestelako informaziorik:					

Zer mailataraino lortu dituen helburuak eta haiei dagozkien gaitasunak				
	Eskuratzen hasia	Garatzen	Eskura-tua	Erabat eskuratua
Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia				
Eleaniztasunerako gaitasuna				
Matematika konpetentzia, eta zientzia, teknologia eta ingeniartzatza konpetentzia				
Konpetentzia digitala				
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa				
Herritar konpetentzia				
Ekimenerako konpetentzia				
Ikasketak uztea eta absentismoa				
	Maila			
Absentismoa azken ikasturtean	Pasiboa	Arina %25	Larria %25-%50	Oso larria %50etik gora
Markatu X batekin				
Interesa izan dezakeen bestelako informaziorik:				

Espektatibak eta zer bokazio eta interes profesional dituen (identifikazio-maila: 1 batere ez, 5 handia)	1	2	3	4	5
Aukera akademikoak, prestakuntzakoak edo profesionalak					
Ez du hausnartu bere etorkizun akademikoaz edo profesionalaz					
Aukera akademiko batean jarraitzea, hala nola curriculum aniztasuneko programa bat, DBHko graduatu-titulua lortzeko					
DBHko graduatu-titulua lortzea, erdi-mailako heziketa-ziklo batean sartzeko					
DBHko graduatu-titulua lortzea, lan-esparruan sartzeko					
Esparru profesionalak					
1.					
2.					
3.					
Interesa izan dezakeen bestelako informaziorik:					

GIZARTE- ETA FAMILIA-INGURUNEARI BURUZKO ALDERDIAK			
	ERAGIN-MAILA		
	Ez	Batzuetan	Bai
Ikaslearen garapenean familiak duen eraginaren faktoreak			
Familiak baditu baliabideak ikaslearen garapen pertsonala, akademikoa eta soziala errazteko			
Familian esku-hartze bat egin da / gizarte-zerbitzuetako erabiltzailea da			
Familiak ez daki eskola-inguruneko hizkuntza			
Ikasleak sentitzen du familiaren babes emozionala			
Ikasleak sentitzen du familiaren laguntza instrumentala			
Familiak ongi baloratzen ditu eskola-erakundea eta jasotako hezkuntza			
Familia inplikutzen da eta laguntzen du hezkuntza-lanean			
Familiak koordinazio egokia du tutorearekin eta ikastetxearekin			
Interesa izan dezakeen bestelako informaziorik:			

ESKOLA-INGURUNEARI BURUZKO ALDERDIAK

	1	2	3	4	5
Erabakia hartzen laguntzen duten faktoreak (Zenbatetsitako balorazio-maila: 1 oso txikia, 2 txikia, 3 normala, 4 handia, 5 oso handia)					
Ikasmaila arrunt batean ikasteko zailtasun orokorrak ditu					
Ohiko curriculumarekin ikasiz gero, etapako helburuak ez lortzeko arrisku nabarmena du					
Curriculum-egokitzapenak behar ditu arlo edo ikasgai gehienetan					
Arreta eta jarraipen indibidualizatuagoa eta sistematikoagoa izatea komeni zaio					
Talde txikiago batean egoteak gehiago ikasten lagunduko lioke, eta aukera emanen lioke gelan parte-hartze aktiboa areagotzeko eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko					
Egungo curriculum-mailara hobeki egokitzeko aukera ematen du eta arrakasta izateko aukerak areagotzen ditu programan sartuta					
Arreta pertsonalizatua jasotzea komeni zaio, funtsezko gaitasunak lortzeko, arloen metodologia globalizatzaile baten bidez					
Eskola-porrota izateko eta hezkuntza-sistema uzteko arrisku nabarmena du					
Bestelako datu interesgarriak					

AZKEN AHOLKUA

Horregatik guztiagatik, proposatzen da ikasle hori curriculum aniztasuneko programa batean sartzea.

- ☐ Curriculum Aniztasuneko Programaren lehenbiziko maila.
- ☐ Curriculum Aniztasuneko Programaren bigarren maila.

_____ (e)n, 20__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Orientatzailea.

Sinatua: _____

**IKASLEARENDAKO INFORMAZIOA CURRICULUM ANIZTASUNeko PROGRAMA
BATEAN SARTZEARI BURUZ**

Nik,
jaun/andreak, mailako taldean nagoenak, entzun dut eta ulertu dut zein diren Curriculum
Aniztasuneko Programaren ezaugarriak, bai eta zein diren ere irakasle-taldeak nire kasuan aukera
akademiko mesedegarriena dela uste izateko dituen arrazoiak, eta nire iritzia da:

- ☐ Aldekoa.
- ☐ Aurkakoa.

Honako honetan sartzeko:

- ☐ DBHko Curriculum aniztasuneko Programaren lehenbiziko maila DBHko 3. maila.
- ☐ DBHko Curriculum aniztasuneko Programaren bigarren maila DBHko 4. maila

Oharrak:

_____ (e)n, 20__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Ikaslea

Tutorea

Sinatua: _____
Izena

Sinatua: _____
Izena

VI. ERANSKINA

FAMILIARENDAKO INFORMAZIOA CURRICULUM ANIZTASUNeko PROGRAMA BATEAN SARTZEARI BURUZ

Nik,
jaunak/andreak, mailako taldean dagoen ikaslearen
legezko ordezkari naizen aldetik, entzun dut ikastetxeak gure semea edo alaba curriculum anizta-
sunezko programa batean sartzeko egin duen proposamena, eta ados nago hemen eskolatzearekin:

- ☐ DBHko Curriculum Aniztasunezko Programaren lehenbiziko maila DBHko 3. maila.
- ☐ DBHko Curriculum Aniztasunezko Programaren bigarren maila DBHko 4. maila.

_____e)n, 20__(e)ko _____aren _____(e)an

Ama/aita/legezko tutorea

Tutoreak ontzat emana

Sinatua: _____
Izena

Sinatua: _____
Izena

Alegazioak:

VII. ERANSKINA

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUARENTZAKO TXOSTENA, IKASLE BAT CURRICULUM ANIZTASUNeko PROGRAMA BATEAN SARTZEKO

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK.

Deiturak eta izena			Ikasturtea		
Jaioteguna		Jaiotekua (herrialdea)			
Jaioterria			NANa/AIza/ANTa		
Helbidea				P.kd.	
Herria			Telefona		
Ikastetxea				Maila	

Ikastetxeko zuzendariak, tutoreak eta orientatzaileak proposatzen dute ikasle hori Curriculum aniztasuneko Programaren lehenbiziko mailan sartzea.

Idazki honi agiri hauen kopia erantsi zaio:

- Ebaluazio akademikoa.
- Egokitasunari buruzko txosten psikopedagogikoa.
- Familiarentzako informazioa.
- Ikasleari jakinaraztea.

_____ (e)n, 20__ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n

Zuzendaria

Tutorea

Orientatzailea

Sinatua: _____

Sinatua: _____

Sinatua: _____